

BESTELAKO XEDAPENAK

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

5524

379/2024 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematekoa «Data Center Euskadi, S.L.» sozietatearen kapital-zabalkuntzan parte hartzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren titulartasuneko partaidetzen ordezkariari baimena ematekoa sozietate horren estatutuetako 5. artikulua aldatzeko onespena emateko.

Uztailaren 26ko 96/2022 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena eman zitzaion orduan eratzeko bidean zen «Data Center Euskadi, S.L.» sozietatean parte hartzeko. Data Center Euskadi, S.L. sozietatearen helburu soziala da datu-zerbitzuen eta sistema informatikoen azpiegituren prozesatze eta kudeaketa zentralizatua egitea edozein entitate publiko edo pribaturen alde, eta zerbitzu horiek emateko behar den aholkularitza ematea.

Data Center Euskadi, S.L.ko Administrazio Kontseiluak erabaki du kapital-gehikuntza bat egiteko proposatzea Akziodunen Batzar Nagusiari, bere inbertsio-proiektua martxan jartzeko egin beharreko inbertsioak egiten hasteko.

Euskadiko Ondareari buruzko Legeko 110.1 artikulua ezartzen duenez (lege horren testu bategina azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen), enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, Gobernu Kontseiluaren alde aurreko baimena behar da, eta baimen hori dekretu bidez eman behar da.

Sozietatea egitekoa den kapital-zabalkuntzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak guztira 720.000 euroko zenbatekoarekin parte hartuko du, hau da, proposatutako zabalkuntzaren % 15ekin (zabalkuntza 4.800.000 eurokoa izango da). Hala, % 15ekoa izango da aurrerantzean hark Data Center Euskadi, S.L.ren kapitalean izango duen partaidetza.

Kapital-zabalkuntzak berekin dakar kapital-sozietateen estatutuetako dagokion artikulua berri-datzi beharra. Hori dela-eta, Euskadiko Ondareari buruzko Legeko testu bategineko 111.2 artikulua aplikatu behar da, zeinak ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta Institutuzionalaren zuzeneko eta zeharkako titulartasuneko akzioen ordezkariak, sozietate-estatutuak onartzearen edo aldatzearen alde egiteko, Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dutela, eta ondareari buruzko eskumenak dituen sailburuak eta sozietatea berari lotuta dagoen saileko sailburuak biek batera proposatu behar dutela baimena ematea.

Ondorioz, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburuak eta Ogasun eta Finantzetako sailburuak batera proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 19an egin-dako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari baimena ematea Data Center Euskadi S.L. sozietatearen kapital-gehikuntzan parte hartzeko, zazpiehun eta hogeita mila (720.000) euroko partaidetzak harpidetuz. Hori zabalkuntzaren % 15 da, guztira lau milioi eta zortziehun mila (4.800.000) eurokoa izango baita zabalkuntza. Eragiketa horren ondorioz, Euskal

Autonomia Erkidegoko Administrazioak sozietatean izango duen zuzeneko partaidetza % 15ekoa izango da.

2. artikulua.— Data Center Euskadi, S.L. sozietatearen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren titulartasuneko partaidetzen ordezkariari baimena ematea kapital-gehikuntzaren ondorioz estatutu sozialetako 5. artikulua aldatzeko adostasuna eman dezan.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 19an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko sailburua,
MIKEL JAUREGI LETEMENDIA.